

B33

Oereanic jagui ninçan...

Zalantzak izan ditugu poemaren hasierako eta amaierako mugak zedarritzean. Batetik, eskuizkribuko aurkezpenak iradokitzen du B32 eta B33 poemek bertso-lerroen segida bakarra osatzen dutela. Bestetik, distikoen errimari begiratu bagenio, hiru poema bereiziko genituzke (-oa, -ean eta -ia errimekin, hurrenez hurren). Azkenik, errimaz gain edukia eta poemetako zenbait elementu kontuan hartuta, bi poema bereizi ditugu. Gure ustez B32 ondo ulertuko litzateke B33ri lotuta ere, lelo moduan edo, baina uste dugu B33: 1-2 bertso-lerroak (*Oereanic jagui ninçan / astelen goicean*) poema-hasierako elementu tipikoa direla eta, hortaz, beste poema baten hasiera markatzen dutela. Bestalde, B33: 19-20 distikotik aurrera errima desberdina dagoen arren (-ean vs. -ia), ez dirudi *Orayn, aldiaz, ayta deçadan* (B33: 1) bertso-lerroa poema-hasieran uler daitekeenik, aurreko zerbaiten jarraipen gisa baino.

Errima-aldaketak markatzen ditu, hain zuzen, poemaren bi zati nagusiak. Lehenengo zatia (B33: 1-18) estilo narratiboan hasten da, laztanarekiko enkontrua deskribatzeko (B33: 1-6); gero, laztanaren soineko jantziak deskribatzen ditu. Bigarren zatia (B33: 19-36), berriz, azken bi bertso-lerroetara garamatzaten leku-izen goraiptuen zerrenda da. Maitea zein ona den erakustea da helburua, eta, horretarako, handitasunaren oihartzuna dakarten leku-izenak aipatzen dira bata bestearen atzean; leku-izen horiek gaurko Espainia eta Italiakoak dira.

Aipatu behar da eranskin honetako *Ene lastan çuri ederra* (B28: 11 eta B33: 5) berdin-berdin agertzen dela B13: 1 bertso-lerroan ere, hots, eskuizkribu nagusiko poema batean.

Bertso-lerro bikoitietan errima duten distikoen segida da: -ean errima B33: 1-18 bertso-lerroetan eta -ia errima B33: 19:36 bertso-lerroetan. Silaba-kopuruak aski irregularrak dira; bertso-lerro bakoitiak zortzi-bederatzi-hamar silabakoak dira, baina bada bat seikoa ere, eta bertso-lerro bikoiti gehienak zortzikoak dira, baina badira zazpikoak, bederatzikoak, eta are bat hamahirukoa.

[1205r] O[e]reanic¹ jagui ninçan
astelen² goicean;

¹ *O[e]reanic*: ‘ohetik’; ablatibo pleonastikoa behin baino gehiagotan agertzen da eskuizkribuan: *lecureanic* (AL: 1145v, B21: 82), *arereanic* (A24: 130, B5: 71), *altureanic* (B21: 80), *O[e]reanic* (B33: 1).

² *astelen*: Astelehena zorigaiztoko eguna izan ohi da gatzelaniazko erromantzeetan eta zoritxarra iragarri ohi du, baina ez dugu uste hemen halakorik ulertu behar denik.

escuetan busti eta
 calera nirteanean,³
 ene lastan çuri ederra⁴ 5
 berduraquin aurrean,
 soynean gonaz ondo janci ta
 jupa⁵ oria gaynean,
 guerrian guerricoa eder,
 solea⁶ sotil⁷ oynean, 10
 bularterian⁸ trapua çuri,
 labradurac⁹ urrean,

³ *nirteanean*: ‘irten nintzenean’; *irten* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu trinkoa. Euskal testuen tradizioan ez da ezagutzen *irten* edo bestelako aldaeren adizki trinko gehiagorik, Lauaxetak berreraikitakoa izan ezik: “*Kanpora durten pozik / neure txakurtxubak*. Laux BBa 50” (apud OEH, sv. *irten*).

⁴ *ene lastan çuri ederra*: Eskuizkribuko beste bi lekutan ere badago bertso-lerro hau: *Ene lastan çuri ederra* (B13: 1) eta *Ene lastan çuri ederra* (B28: 11).

lastan: Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugari dira txistukarien nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguiçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaquistanean* (B29: 5), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten* (B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *fordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35). Eskuizkribuko testu nagusian, berriz, soilik *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, eta Martin Lopez Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela.

⁵ *jupa*: ‘atorra luze’; Leizarragak *jupa* erabiltzen du ‘tunika’ esanahiarekin (cf. OEH, s.v. *jipoi*, *jupa*, *justa*). Gaztelaniaz, lekukotasun bat aurkitu dugu *CORDEn* andrazkoaren jantziren bat aipatzeko (1409ko Laredoko epai batean): “que tomaron a Gonçalo Ferrandes de Puerta una fundra barrada apreçiada en ochenta maravedis, más una **jupa** de la so moça e unos manteles apreçiados en treynta maravedis; que tomaron a Iohan Garçia de Castro una ropa de pavo de Brujas apreçiada en quinientos maravedis, más un par de fronteras e dos pares de manteles”. Ikusi baita *DAut*, s.v. *chupa*: “Vestidura ajustada al cuerpo, larga hasta cerca de las rodillas, que abraza las demás vestiduras interiores, encima de la cual no hai más ropa que la casaca. Es voz moderna tomada del francés”.

⁶ *solea*: ‘zapata’ edo ‘sandalia’; cf. *DAut*, s.v. *suela*: “...llaman [*suelas*] en algunas regiones a todo el calzado de que usan sus individuos. Lat. *Solea*”. Ikusi baita *DRAEn* ere: “7. f. pl. En algunas órdenes religiosas, *sandalias*”. Euskaraz ez da honelakorik oraino jaso (cf. OEH, s.v. *zola*).

⁷ *sotil*: ‘eder’; cf. OEH, s.v.: “I. Hermoso. "Donoso", "hermoso", "lindo", "pulido" Añ. "Ai, ai, ai, neure seintxu sotila [...] (V)" A. Tr. Propio de la tradición meridional (aunque cf. *infra* ejs. septentrionales de *xotil* con este significado; varios de los ejs. de este apartado pueden corresponder a otras acepciones). *Gizon txipi sotil baten andra zan* (Endechas de Milia de Lastur). "Pequeño y bien hecho". TAV 3.1.5, 76”.

⁸ *bularterian*: ‘bularraldean, paparrean’.

⁹ *labradurac*: ‘apaindurak, brodatuak’; cf. *DAut*, s.v. *labrar*: “Vale también hacer y ejecutar con la aguja diversas labores en la ropa blanca”.

donzellaquin fordeliçac¹⁰
 lepoan¹¹ goyen,¹² [g]aynean;
 donzella batec joci¹³ ceban¹⁴ 15
 Iruneco calean,
 niri ondo costa jaquin¹⁵
 Guipuscoaco lurrean.
 Orayn, aldiaz,¹⁶ ayta deçada[n]
 Gastelaco noblezia,¹⁷ 20
 Burgus ta Toledo¹⁸

¹⁰ *donzellaquin fordeliçac*: ‘dontzeilak eta flordelisak’, hots, dontzeila irudiak eta lis-lore irudiak dituzten apaindurak; “Xrekin Y” egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.

fordeliçac hitzaren formari dagokionez, testuinguru fonetiko honetan, ez da ezinbestekoa *flordeliçac* berreraikitzea, *-l-* galtzea eboluzio fonetiko legez azaldu baitaiteke. Bestalde, txistukariaren grafiak (<ç> *pro* <s>) erakusten du ordurako txistukariaren nahasketa aurreratua zela kokagune honetan (bokal artean); ikusi orobat poema honetako *joci* (B33: 15).

Esanahiari dagokionez, idunean urrez brodaturik (*labradurac urrean ... lepoan goyen*) daraman irudi edo apaindura dela dirudi. Ez dugu beste inon aurkitu *dontzeila* apaindura legez, baina hemen, *fordeliçac* hitzarekin loturik, horrela baino ezin dugu ulertu.

¹¹ *lepoan*: ‘idunean, lepondoan’, eta ez bizkarrean. Cf. Lcc “çeruiz, *lepoa*” eta “pescueço, *lepoa*”.

¹² *goyen*: ‘goren’; cf. *OEH*, s.v. *goien*: “Más frecuente al Sur. Los septentrionales (Dechepare, *CatLan*, Laphitz (45) e Inchauspe (*Hil* 226)) usan *goihen*. En autores meridionales *goien* es la forma más usual”.

¹³ *joci*: ‘josi’; txistukariaren nahasketari buruz, ikusi *fordeliçac* (B33: 13) eta horri dagokion oharra.

¹⁴ *ceban*: ‘zuen’; hemen *z-* aurrizkiak iraganeko 3. pertsona adierazten du; ikusi baita *baceducan* (B3: 28). Orohar, Lazarragaren eskuizkribuan, 3. pertsonako adizkiek ez dute aurrizkirik hartzen iraganean (cf. *eben*, *passim*), eta *z-* aurrizkidun formak 2. pertsonakoak dira (*ceucala* A26: 96, 98; *ceucan* A26: 106).

¹⁵ *costa jaquin*: ‘niri kosta izan, niri kostata’; *jaqui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa edo aditzoina aditz nagusizat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Donzellea*, *cegati çaoz / enegaz enojaduric*, / *çurequin ene aitasuna / horrela anci jaquinic*? (AL: 1142v), *Sirena bere ainbeste dabil*, / *besteoc leguez galduric*, / *Doristeori on derechala*, / *Silvero anci jaquinic* (AL: 1145v), *Esperancea galdu jaquinic* / *bici çan*, *aseguin bague* (AL: 1145v), *Acorda çatez ceyn on derechudan*, *eta bay nola çabilcen engañaduric*, *igui çabenaren acean*, *ene amorioau ancitu jaquinic* (AL: 1152v), *Tortolachoa ebiltan da / bacochic maiaz ilean*, / *bere laguna galdu jaquin da / tristeric soledadean* (A16: 73-76), *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciaric*, / *deseo neben ocasio / cerren nagoan jaquinic* (A23: 1-4), *Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic*; / *inori emun bajagot bere*, / *ez nago damu jaquinic* (A23: 57-60), *donzella batec joci ceban / Iruneco calean*, / *niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrean* (B33: 15-18). Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, **edin* aditzaren aldaera bipertsonala (NOR-NORI) baizik ez da.

¹⁶ *aldiaz*: ‘aldiz’; Landuccik ere *aldiaz* dakar, ez *aldiz* (cf. “a vezes, *aldiaz*”); *aldia* (eta ez *aldi*) mugagabearen adibideak dituzte Axularrek eta Otxoa Arinek.

¹⁷ *noblezia*: ‘bikaintasuna’; cf. *DAut*, s.v. *nobleza*: “Significa assímismo la excelencia, primor o ventaja que tienen algunas cosas entre las demás de su especie”.

	ta Cordoba ta Sibillia; ¹⁹	
	Aragoeco errein[uan	
[1205v]	Barcelona ta Valencia.	
	Napol ²⁰ erri ²¹ noblea da,	25
	aric ²² urrean ²³ Calabria, ²⁴	
	Genoaco ²⁵ condaduan ²⁶	
	Pisaquin Florencia. ²⁷	
	Pullalequin ²⁸ Ferrera ²⁹ baino	
	obeago da Venescia. ³⁰	30
	Munduac claramentean daqui	

¹⁸ *Burgus ta Toledo*: Burgos eta Toledo biak batera agertzen dira Garibairen atsotitz batean ere: “Larrea Burgos baño ohea, Toledoren idea”.

Latinezko forma *Burgus* da, baina ez dugu forma horren lekukotasunik aurkitu gaztelaniaz edo euskaraz. Atzeman dugun formarik antzekoena Ciérbideren *Censos de población de la Baja Navarra (1350-1353 y 1412)* liburuan dago: *Bernat seynor de Burgu*, gure eskuizkribuak aipagai duen *Burgus*-ez besteko *Burgu* batez ari bada ere, bistan dena.

¹⁹ *Sibillia*: *Sivillja* forma dakar Fray Juan Zumarragakoak (1537).

²⁰ *Napol*: *CORDE*ko lekukotasunen arabera, XVI. mendearen hasiera arte erabili zen gaztelaniaz *Napol* forma. Napoleseko erreinuak Italiako hegoaldeko lur guztiak hartzen zituen eta, Bartzelona eta Valentzia bezala, Aragoiko Koroarena izan zen luzaroan (1442az geroztik).

²¹ *erri*: ‘lurralde, herrialde’; cf. Lcc “conquistar tierras, *erriac yrabaçi*”.

²² *aric*: ‘handik’; eskuizkribuko bakarra da. Lazarragaren eskuizkribuan, *arean* ablatibo zahar simplea (AL: 1143r, A24: 82 eta *areanche* A27: 33), *arerean*, hartatik eratorria (B12: 18, B16: 84 eta B16: 138) eta *arereanic*, eratorriaren pleonastikoa (A24: 130, B5:71) ere aurkitu ditugu.

²³ *urrean*: ‘hurbilean’.

²⁴ *Calabria*: Italiako hego-mendebaldeko lur-muturra da Calabria, Siziliatik hurbilen den penintsulako herrialdea. XVI-XVII. mendeetan Napoleosen mende izan zen.

²⁵ *Genoaco*: *CORDE*n badira *Genoa* formaren XV. mendearen amaierako zenbait lekukotasun, gaztelaniaz.

²⁶ *condaduan*: Izatez Genoa dukerri edo errepublika izan zen, ez konderri. Nolanahi ere, *Condado de Génova* behin aurkitu dugu aipatua XVI. mendeko gaztelaniazko testu batean: “Entraron por Piamonte, y pasaron los Alpes por el **Condado de Génova**, y salieron por junto á Niza de Villafranca...” (Miguel Salvá & Pedro Sáinz de Baranda, 1846, *Colección de documentos inéditos para la Historia de España*, Madrid, IX, 414).

²⁷ *Pisaquin Florencia*: ‘Pisa eta Florentzia’; “Xrekin Y” egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko. Hurrengo lerroan ere egitura bera dago. Pisa Genoak menderatu zuen 1284an eta Florentziak 1406an, baina ez dakigu zergatik aipatzen diren Pisa eta Florentzia Genoaren barruan.

²⁸ *Pullalequin*: *Pullal* ziur aski Puglia edo Apuliaren ordez dago. Italiako hego-ekialdeko eskualdea da eta Aragoiko Koroarena izan zen XVI. mendearen hasieran.

²⁹ *Ferrera*: *Ferrera*, ziurrenik, Ferrararen ordez dago. Italiako ipar-ekialdeko eskualdea da, eta Ferrarako dukerria XVI. mendearen azkenetan (1597ra arte) izan zen, hain zuzen, bere une gorenean.

³⁰ *Venesia*: Veneziak XV-XVI. mendeetan bizi izan zuen bere historiako loraldi nagusia.

çurça³¹ dana³² Cicilia.³³

Di]ostaenez,³⁴ lecu on dira

Toscanarequin Lonbardia.³⁵

Aec gustiac bayno bere

35

obeago ene amore onescia.³⁶

Fin

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 Oereanic] esk. *oreanic*. || ninçan] esk. *nincan*. **6** aurrean] esk. *aurean*. **8** jupa] ez gaude ziur *-u-* eta *-p-* letren artean ez ote dauden beste letra bat edo bi (agian *jurapa* edo *jumpa*). || gaynean] esk. *gaynea*. **9** guerrian guerricoa] esk. *guerian guerricoa*. **10** oynean] esk. *oynea*. **11** bularterian] esk. *bularteria*. || trapua] *-u-* beste letra baten gainean idatzita dago (agian *-o-*). **12** urrean] esk. *urreea*. **14** gaynean] esk. *gaynean*; *-n* bukaera beste zerbaitekin zirriborratuta dago. **19** Orayn] aurrean bi letra edo, tatxaturik (agian *oy*). || deçadan] *-n* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **23** erreinuan] *-uan* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **1205v** Orrialde honetako lerroak ezkerreko zutabearen idatzi dira, nahi izanez gero gehiago idazteko lekua uzteko moduan, baina orrialdean ez da beste poemarik idatzi eta zuriune handia geratu da (ezkerreko zutabearen erdia eta eskuineko zutabea osorik). Zuriune horretan batik bat emakume-izenen monogramak eta forma zifratuak idatzi dira, eta, beste tinta batez, izen horietako batzuk. **32** Diostaenez] *Di-* ez da ikusten, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako. || çurça] esk. *çurca*. **33** lecu] esk. *leçu*. **35** Aec] aurrean *ay* tatxaturik. **36** onescia] *-ç-* letra *-s-* baten gainean idatzi da.

³¹ çurça: ‘zurtza, isolatua’, hain zuzen uhartea dela adierazteko.

³² dana: *-na* konpletiboa da.

³³ Cicilia: ‘Sizilia’. *Cicilia* forma *CORDE* datu-basean erruz lekukotzen da XVII. mendearen erdia arte. XVI-XVII. mendeetan Espainiako erregeordetza izan zen.

³⁴ Di]ostaenez: ‘diostatenez, esaten didatenez’.

³⁵ Toscanarequin Lonbardia: ‘Toskana eta Lonbardia’; ‘Xrekin Y’ egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko. Florentzia hiriburu duen herrialdea da Toskana, eta Milan hiriburu duena Lonbardia.

³⁶ onescia: ‘onetsia, maitatua’; lekukotasun honek asko aldatzen du orain arte ezagutzen zen kronologia; cf. *OEH*, s.v. *onetsi*: “Tr. Documentado al Norte en autores de los ss. XVI, XVII y XVIII, disminuyendo notablemente su empleo en los ss. siguientes. Al Sur se encuentra en *BBizk*, Larramendi, Mendiburu, Cardaberaz, Ubillos (172), Añibarro (*MisE* 141), Iztueta, Arrue, en autores modernos y en textos navarros y pirenaicos desde mediados del s. XVIII”. Hemen pentsatu behar da <sc> grafiak txistukari afrikatua adierazten duela, eskuizkribuko beste leku batzuetan, maileguetan (*meresci-*, *padesci-*, *obedescidu*, *Venescia*), frikaria adierazten duen arren.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B33 – Oereanic jagui ninçan...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago